EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO JAUNAK, EUSKO JAURLARITZAKO IDAZKARIA ETA GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURUAK**

**EGIAZTATZEN DUT:**

Eusko Jaurlaritzak, 2017ko otsailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**ERABAKIA, AINTZAT HARTZEKO ETA LEGEBILTZARRERA BIDALTZEKO 2016-2020 XI. LEGEGINTZALDIKO GOBERNU PROGRAMA.**

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat eginez, Lehendakariak Jaurlaritzaren jarduna zuzendu eta koordinatzen du, sailburu bakoitzari bere jardunean dagokion eskumen eta erantzukizunari kalterik egin gabe, eta horretarako, *Gobernu Programa* definitzea dagokio, besteak beste.

Lehendakariak, bere eginkizuna betez, XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa aurkeztu du Gobernu Kontseiluan, sail guztien ekarpenak jaso ondoren programa horretan. Gobernu Programak erreferentziatzat hartu du 2016ko azaroaren 22an Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Euskadiko Alderdi Sozialistak izenpetu zuten koalizio hitzarmena, hor zehaztu baitira XI. Legegintzaldiko jarduera eremua eta lehentasunak. Aipatutako koalizio hitzarmena garatu eta zehaztu du Gobernu Programak eta XI.

**JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO, CONSEJERO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIO DEL GOBIERNO VASCO**

**CERTIFICO:**

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 21 de febrero de 2017 adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO DE TOMA EN CONSIDERACIÓN Y REMISIÓN AL PARLAMENTO DEL PROGRAMA DE GOBIERNO DE LA XI LEGISLATURA 2016-2020.**

De conformidad con lo establecido en el artículo 8 de la ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, el Lehendakari, dirige y coordina las acciones del Gobierno, sin perjuicio de la competencia y la responsabilidad de las personas titulares de los Departamentos en su gestión y, a tal efecto le corresponde, entre otras funciones, *definir el Programa de Gobierno.*

El Lehendakari, en el ejercicio de sus funciones, presenta al Consejo de Gobierno el Programa de Gobierno de la XI Legislatura que ha sido elaborado con las aportaciones de todos los Departamentos. El Programa de Gobierno toma como base de referencia el Acuerdo de Coalición suscrito el 22 de noviembre de 2016, entre Eusko Alderdi Jaeltzalea/Partido Nacionalista Vasco y el Partido Socialista de Euskadi, que determina el marco de actuación y las prioridades para esta XI Legislatura. El

Nahi izanez gero, J0D0Z-T0VQG-VBD9 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0VQG-VBD9 en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Legegintzaldirako konpromisoak eta 2016-2020 bitartean garatuko diren jardunak bildu ditu.

Programa de Gobierno desarrolla y concreta el Acuerdo de Coalición citado y recoge los compromisos e iniciativas a desarrollar en la XI legislatura a lo largo del periodo 2016-2020.

Gobernuko kideek gobernu programa sortzen ez ezik programa hori betetzen ere parte hartzea eta inplikatzea funtsezko elementua da programa hori gauzatzeko eta bertan jasotako konpromisoak hezurmamitzeko.

La participación e implicación de los miembros del Gobierno no sólo en su gestación sino también en el proceso de ejecución, resulta un elemento clave para su materialización y para hacer realidad los compromisos que en él se contemplan.

Horregatik guztiarengatik, Jaurlaritzari buruzko Legearekin bat eginez, Lehendakariak proposatuta eta gaia eztabaidatu ondoren, Gobernu Kontseiluak erabaki hau hartu du,

Por todo ello, de conformidad con la Ley de Gobierno, a propuesta del Lehendakari, y previa la correspondiente deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

"Lehenengoa.- Kontseiluak ezagutu du 2016-2020 XI. Legegintzaldiko Gobernu Programa. Erabaki honen eranskinetan jaso da programa hori.

"Primero.- Tomar en conocimiento del Programa de Gobierno de la XI Legislatura, 2016-2020, que se adjunta como Anexo.

Bigarrena.- Eusko Legebiltzarrera bidaliko da Gobernu Programa".

Segundo.- Remitir el Programa de Gobierno al Parlamento Vasco".

**ERABAKIAREN ERANSKINA: 2016-2020 XI. LEGEGINTZALDIKO GOBERNU PROGRAMA.**

**ANEXO AL ACUERDO: PROGRAMA DE GOBIERNO DE LA XI LEGISLATURA, 2016-2020.**

Eta horrela jasota gera dadin eta izan beharreko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Vitoria-Gasteizen, 2017ko otsailaren 21ean.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 21 de febrero de 2017.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T0VQG-VBD9 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea
La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0VQG-VBD9 en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador